

AUTO-STOPEAN

Testua eta irudiak: GUILHERME KARSTEN

Irzulpena: XABIER OLASO

Azal gogorrean enkoadernatua. 27,5 x 25,5 cm. 36 or. 16,50 €

«PRÉMIO INTERNACIONAL SERPA PARA ÁLBUM ILUSTRADO (OHOREZKO SARIA-» (Portugal, 2017)

«GOLDEN PLAQUE STATUE» SARIA (Eslovakia, 2019)

[Auto-stopean](#) (euskara)

ISBN 978-84-9172-224-3. Egile-lanak.

[Hacer dedo](#) (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-078-2. Primeros lectores

[Facer dedo](#) (galegoa)

ISBN 978-84-1343-077-5. Demademora.

[Autoestop](#) (katalana)

ISBN 978-84-18558-16-0. Obres d'autor.

Egun eguzkitsua izaki,

surflaria oso goiz da jaiki.

Bidaian irteteko

guztia eskura du, dagoeneko;

surf-ohola eta ekipaje txikia hartuta,


gertu dago hondartzara joateko.

Badoa surflari ausarta!

«Auto-stopean» istorio ausarta da eta, hain juxtu ere, auto baten barruan gertatzen dira humorez eta egoera barregarri beteriko egoera guztiak, aldian-aldian sartzen diren bidaiari berezi-bereziak ere tarteko direla. Surf-taula aldean duela, hondartzara joateko prestatzen ari den surflari bat aurkezten digu testu errimatuak. Hirian barrena ibilbidean aurrera egiten duen heinean askotariko pertsonaiak hartuko ditu (edo ez) autoan, nor baino nor bitxiagoa: urpekaria, superheroia, kaimana... eta ipuinetako pertsonaiaren bat edo beste ere irtengo zaio bidera.

Eta bidaiari bakoitzak bere tramankuluak ez ezik, berezkoa duen ezaugarriren baten ekarpena ere egingo du; denak ala denak ere, gidari prestuak biziko dituen emozioen zaldiko-maldikoaren parte izango dira, bere autoa bidaiariz eta tramankuluz betetzen den bitartean.

Kontakizun kateatua da Guilherme Karsten-en obra honen emaitza; alde batetik, erritmo eta zolitasun handia ditu eta, bestalde, bukaera harrigarri eta irekiarekin amaitzen den planteamendu zirkularra du. Modu linealean garatzen den proposamen grafikoa eszenen eta kontraste kromatikoengatik nabarmentzen da, hori guztia alai eta ausarta den hiri-giroan gertatzen delarik.



■ **Gala:** Auto-stopean ari diren askotariko pertsonaiekin partekaturiko bidaia.

■ **Adin egokia:** 4 urtetik aurrera.

■ **Nabarmenezkoa:** Testu errimatu, egitura kateatua; humorea, abentura, emozioak; koloreak eta hiri-estetika.

■ **Liburuaren aurrerapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/auto-stopean-eusk>

Guilherme Karsten

(Brasil, 1982)

Publizitatea eta Diseinu grafikoa ikasi zituen. Haurrentzako liburuen idazlea eta ilustratzailea da. Bere obra Latinoamerikan, Europan eta Asian ere argitaratu da. 2010 urteaz geroztik hainbat aipamen eta sari jaso ditu: Sello Cátedra 20 Unesco (Brasil), Planeta Tangerina (Portugal) sariketan aipamena, Jabuti (Brasil) eta Nami Island (Corea) sarietan finalista, Bratislavako (Eslovakia) Ilustrazio Bienalean hautatua izan zen eta, orobat, nazioarteko Golden Pinwheel (Txina) sariketan ere irabazle izan zen. Horretaz guztiaz gain, animazio eta moda-proiektuetan ere parte hartu izan du.

<https://www.guilhermekarsten.com>

